
IÑAKI ZUZA, MENDIAREN MAGIAK HARRAPATUTA



Dagoeneko, hamaika urte dira hernaniarra mendi gidari lanetan hasi zela. Bere senitarteko zein hernaniar askori gertatu zitzaien legez, Iñaki ere gaztetik mendiarekin harrapatuta geratu zen. Nerabea zela, ez zien egiten jaramon handirik ikasketei, eta "aukera" zuenean, mendira eta eskalatzera abiatzen zen. Hasieran, jakina, inguruko mendi eta paretetan ibiltzen zen, baina urteen poderioz, mendizale gehienek bezala, beste urrats batzuk egin zituen, eta etxe inguruko mendietatik Pirinioetara eta Alpeetara salto egin zuen.

Bere mendi jarduerari buruz asko hitz egin genezake, baina hori guztia albo batera utziko dugu, eta orain dela hamahiru urte Iñakik hartutako erabaki erakargarri bati buruz mintzatuko gara. Felipe Uriarte zuzendari duen *Mendiak eta Herriak* agentzian sartu zen, mendi gidari lanetan jarduteko. Europatik kanpo gidari izateko aukera izan du, besteak beste, Amerikatako gailur garaienetan eta Ama Dablam mendian (Himalaian, Nepalen). Eta horregatik guztiagatik ekarri dugu lerro hauetara.

Ondo iruditzen bazaizu, zure hastapenetatik hasiko gara. Dagoeneko, urte batzuk pasatu dira mendi gidari izateko lehen urratsa egin zenuenetik. ***Mendiak eta Herriak*** agentziak "fitxatu" zintuen. Halako eskaintza bati ezin uko egin, ezta? Mendi gidari moduan lan egiteko aukera zen. Egia esan behar badut, ez nekien luzerako izango zenik; bai, lanean hasiko nintzela argi neukan, baina, adibidez, orain arte iraungo nuenik... Beste era batera esanda, urrats bat beste baten ondotik egin dut, eta ia-ia ohartu gabe egin naiz mendi gidari. Hasi nintzen 1993. urtean; nola pasatzen den denbora! Zuk aipatu duzun legez, Felipe Uriartek zuzentzen duen *Mendiak eta Herriak* agentziarekin hasi nintzen, bera izan zen eskaintza egin zidana.

Aipatu beharra dago mendi gidarien agentzia hori Euskal Herriko zein Espainiako Estatuko lehenetarikoa dela. Horrela bada, gauza berezi batez jabetzen naiz; hots, beste lanbide batzuekin alderatuta, gauza berri batean ari naizela. Zergatik diodan hori? Bada, ingurumari honetan, bederen, mendian lan egitea nahikoa lanbide berria delako. Nik esango nuke mendian lan egiteak oraindik baduela idealismo kutsu hori. Batzuetan zera esan izan didate: "*Zer zorte ona duzun, gustatzen zaizun lanbidea duzu*". Bada, hein batean arrazoia dute, besteak beste, nik aukeratutako lanbidea delako; jende gehienak ezin du halakorik esan.

Nahiz eta orain arte egoera oso bestelakoa izan den, lasai asko esan daiteke mendi gidariaren lanbidearekin bizibidea atera daitekeela. Bazirudien ezinezkoa zela, baina, adibidez, Felipek argi utzi du horretatik bizi daitekeela. Agentzia sortu zuenetik hor dabil: ikastaroak eman ditu, jendea mendira eraman du, ikus-entzunezkoak antolatu ditu... Inolako zalantzarik gabe, mendiko profesional hutsa da. Gaur egun egoera aldatu egin da. Profesionalak babesleak ditu; mendi gidariak, aldiz, ez.

Bestalde, aipatu behar dut zorte handia izan dudala Felipe bera, Martin Zabaleta, Xabier Erro eta Ramon Elosegi bezalako lagunekin lan egiteagatik. Beraiengandik gauza asko ikasi ditut, urratsak egoki egiten ikasi dut, gauza zailagoak egiten joan naiz, mendi garaiagoak igo ditut… Denbora guztian ari naiz esperientzia berriak bizitzen, irteera bakoitzean hobetzen eta ikasten, eta hori guztia bai alpinismoan bai bezeroekin izaten dudan harremanetan.

Aipatu duzun guztiarekin, argi erakusten duzu mendi gidari izateak baduela oraindik kutsu idealista edo erromantikoa. Hori esaten baduzu jendeak pentsa lezake ez dela benetako lanbide bat, eta horrekin ez zara ados izango. Jakina; finean, lanbide bat da. Arestian esandakoarekin azpimarratu nahi nuena zen, eite erromantikoan baino gehiago, giza harremanetan oinarritzen dela nire lanbidea. Zergatik diodan hori? Bada, bezeroarekin askotariko egoerak bizi ditudalako. Ez da soilik mendi bat igotzea; ez horixe. Inolako zalantzarik gabe, tontorra egiten dugunean asko disfrutatzen dugu, baina badira beste alderdi batzuk kontuan hartu behar direnak. Uste dut batzuetan nik disfrutatzen dudala gailurra bezeroak baino gehiago. Hori guztia, jakina, baldintza onekin erdiesten baduzu; baina tartean baldintza txarrak badituzu, halakoetan nahiago izaten duzu Mediterraneoko hondartza batean lan egingo bazenu.

Zure ogibidean goi edo behe-denboraldiaz hitz egin al daiteke? Nola banatzen da zure lan denboraldia? Beno, lasai asko esan dezaket urte osoan egiten dudala lan. Jakina, batzuetan lan gehiago izaten dut, batez ere udan; eta beste batzuetan, gutxiago. Neguan, adibidez, batez ere Gabonetan, Aconcaguara joaten naiz. Ondoren, Pirinioetan zein Europako Haitzetan korridoreak eta ikastaroak ematen ditut. Hori uda iritsi arte. Udaldi horretan, aipatutako mendilerroez gainera, Alpeetan asko jarduten dut. Eta, amaitzeko, udazkenean, bada, eskalada ikastaroak eta Ama Dablamekoaren (Nepal) tankerako espedizioak.


Beraz, Pirinioetan zein Himalaian egin duzu lan. Ohikoa izaten al da hori? Euskal Herriko eta Pirinioetako mendietan hasi nintzen, bai gidari bai ikastaroak ematen. Europako Haitzetan beste hainbeste gertatu zait, eta, ondoren, Alpeetara salto egin nuen. Orain lau urte Aconcaguara joateko aukera izan nuen, eta iaz, berriz, Himalaiara. Uste dut urrats horiek agentziaren beharrekin lotura zuzena dutela, besteak beste, nik ia beti Pirinioetan jarduten nuelako. Alpeak batez ere



Iñaki Zuza eta harkaitza betidanik egon dira loturik. Argazkian, Ausa Gaztelun eskalatzen.

Zuluk eta Felipek egiten zituzten. Baina eskaera handitzen joan zen, eta Pirinioetatik Alpeetara salto egin nuen. Aitortu behar dut urrats kualitatiboa izan dela, baina ez da etorri gidari ona edo txarra izateagatik; eskaera zegoen eta kito. Bestalde, Alpeetan lan egiteari garrantzi handia ematen diot, besteak beste, mendi gidariaren lana alderdi haietan sortu zelako, eta, beraz, beraien eremuan egiten dut lan, hots, haien "zelaian" jokatzen dut. Alpeak dira mendi gidarien benetako eremua; berdin dio txikia edo handia izan.

Makina bat alderditan lan egin duzu. Guztien artean bat aukeratuko al zenuke? Edo beste era batera esanda, lan egiteko zein mendi dituzu gustukoen? Ez dakit. Tira, nik argi daukat: etxe ondoan dauden mendietan lan egin nahi dut. Hots, Euskal Herriko mendietan, Pirinioetan, Europako Haitzetan eta Espainiako Estatuko beste mendilerro batzuetan. Alpeak baino Pirinioak nahiago ditut. Horrekin ez dut esan nahi Alpeak



Mendi gidari hernaniarra Kuffner ertzan (Mont Maudit, Alpeak) atsedena hartzen

gustuko ez ditudanik; ez horixe. Alpeak zer diren ikastea oso ona da, baina noizean behin soilik joatea gustatuko litzaidake. Nik Alpeetako Mont Maudit-eko *Kuffner* ertza baino Pirinioetako Cabrioles-Lezat ertza nahiago dut. Beraz, Alpeetara oporretara joango nintzateke, eta noizean behin han gidari lanak egin; hangoek gida dezatela han! Hala ere, niretzat garrantzitsuena irteera hori bezeroarekin erabat gozatzea da.

Hortaz, esango banu Iñaki Zuza pirineista hutsa dela, hanka sartuko al nuke? Beharbada ez. Arestian aipatu dudan bezala, nahiago dut etxe ondoko mendietan lan egitea. Baina horrekin ez dut esan nahi atzerriko beste mendilerro batzuetara joatea gustuko ez dudanik.

Ardurari dagokionez, zuretzat berdin al da bezero bat Pirinioetara, Alpeetara, Aconcaguara edo Himalaiara eramatea? Ardura handiagoa al da mendi garaietan? Teorian, bai. Baina normalean Pirinioetara eramaten dudan bezeroa, ondoren Alpeetara, Aconcaguara... etortzen da. Haatik, nik sentipen berak izan ditzaket Taillongo nahiz Aconcaguako gailurretan. Bezeroarekin *feeling* edo harreman majoa baduzu, lehen aipatutako bizipen horiek biderkatu egiten dira.

Zer ematen dizu mendi gidaria izateak? Hitz gutxitan, bizitzeko diru iturria da. Eta, gainera, gustatzen zaidan ogibidea da. Naturan egiten den lanbide bat da, eta horrek erabat betetzen nau. Artzainaren lanbidea bezalakoa da, baina argitu behar dut bezeroa ez dela artaldea (kar, kar). Nahiz eta naturan egiten den ogibidea izan eta gustukoa izan, horrekin ez dut esan nahi naturan egiten diren guztiak atsegin ditudanik. Adibide bat jartzeko, eraikuntzarena aipatuko nuke; konprenitzen duzu, ezta?

Bezeroak mendi txikietara zein garaietara eraman dituzu, mendilerro ugari ezagutzen dituzu... Zer geratzen zaizu egiteko? Zer egin nahi zenuke? Berriro gauza bera esango dut, baina etxe ondoko mendietan lan egitea atsegin dut; ez dut erronka berezirik. Jakina, gauza berriak egiten dituzu, eta horiek guztiek betetzen naute, aberastu egiten naute eta asko ikasten dut; baina, aipatu dudan legez, ez dut helburu handirik. Himalaiako glaziarrek ez dute Pirinioetakoekin zerikusirik, noski, baina finean eremu berean lan egiten da. Beste mendi batzuk ezagutzea ondo dago, baina haietan lan egitea baino nahiago dut haiek ezagutzera joatea. Zortzi milako batera jendea eramango al nukeen? Bada, gaur egun ez, besteak beste, bezeroak hara eraman baino lehen "erraldoi" hori ezagutu behar duzulako, eta ni ez naiz zortzi milakoetan aritu. Mendi garaietan lan egitea ez zait asko gustatzen. Horietan eskarmentua izatea ondo dago, baina han lan egiteak ez nau erakartzen. Lagunen batekin irteera bat antolatuz gero, joango nintzateke; baina han lan egitea beste kontu bat da. Nahiago dut Balerdiko ertza eskalatu eta ondoren hamaiketakoa egin, eta neguan Pirinioak. Hori bai, esperientzia berriek erabat aberasten naute.

Beste lanbide askotan ez bezala, zaletasuna eta ogibidea elkarri uztartuta daude zure kasuan. Batek baino gehiagok galdetuko dizu "Ez al zara mendiaz nekatzen?". Zaletasuna beste era batera gozatzen duzu. Inolako zalantzarik gabe, bezero batekin ondo pasa zenezake, baina zure neska lagunarekin edo lagunekin bestelakoa da. Zuk aipatu duzun uztartze horrek orain-dik ez nau gainditu. Mendi gidari izateak mendiaz ikasten eta mendian gozatzen laguntzen nau.

AMA DABLAMEN ESPERIENTZIA ABERATSA

Iñaki Zuzak zuzendutako espedizioak iazko urriaren 17an zapaldu zuen gailurra.

Mendi gidari hernaniarrak dagoeneko hainbat espedizio egin ditu Europatik kanpo. Azken lau urteotan, adibidez, Ameriketako mendirik garaienean jardun du, Aconcaguan (6.959 m), eta urte horien emaitzak bikainak izan dira. Zergatik diogun hori? Bada, gailur hori lau aldiz erdietsi duelako. Aconcaguarekin batera, gainera, Ameriketako bigarren eta hirugarren garaienak ere igo ditu: Pissis (6.882 m) eta Ojos del Salado (6.864 m).

Iaz, berriz, mendi garaienetan beste esperientzia bat izan zuen. Erronka ez zen batere makala. Iñakik beste bide bat hartu eta bere jardunbidean beste urrats erakargarri bat egin zuen. Nepalgo Himalaiara joan, Ama Dablam mendia "zain" baitzuen. *Mendiak eta Herriak* agentziak antolatutako espedizioa zen, eta mendi gidari hernaniarra izan zen haren buru. Aconcagua mendia baino txikiagoa da, baina Iñakik berak adierazi digunez, "ez *dauka zerikusirik*". Esperientzia zeharo bestelakoa izan zen, eta horregatik hautatu dugu, orain arte gidatu dituen espedizioen artean, Ama Dablamekoa orri hauetara ekartzea.

Euskal mendizale gutxi ibili ziren iazko udazkenean, montzoiaren osteko garaian, Nepal aldean. Igoera aipagarrienetarikoa Ama Dablam mendikoa izan zen, urriaren hamazazpian egin zutena, eta igoera haren protagonistetako bat izan genuen Iñaki Zuza. Jakin badakigu 6.857 metroko mendi horrek imanak bezala erakartzen dituela makina bat mendizale. Estetikoa, ederra, batere erraza ez, dozenatik gora bide, ez oso garaia... mendizalearen sena gogortzen duen sei milakoa dugu. Eta Iñaki ere mendi horren sareetan erori zen; ezagutzen ez zuenez, erronka askoz ere erakargarriagoa iruditu zitzaion, besteak beste, lehen aldiz Himalaian gidari izango zelako. Horrela bada, ez zuen ezezkorik emateko aitzakiarik.

Erakarpen horren inguruan hernaniarra eta beste bost mendizale bildu ziren, *Mendiak eta Herriak* agentziak antolaturiko espedizioan, hain zuzen ere. Sei lagun ziren, baina bi taldetan banatuta. Lehenbiziko taldean Iñakik (espedizioburuak), Aitor Iparragirre Iemoarrak eta Alberto

Ama Dablam mendia. Iñaki Zuzak Himalaian gidatu duen lehen aldia.



Nuño iruindarrak jardun zuten; bestean, berriz, Txema Sanchezek, Aitor Aranburuk eta Iñigo Zabaletak, hirurak ala hirurak iruindarrak.

Iraila bukatzeko astebete falta zela, seikotea Katmandura abiatu zen. Motxila eta petateekin batera, Ama Dablamen igo nahi zuten bidearen xehetasun guztiak zeramatzaten. Ohi ez den bezala, ohiko bidea edo hego-mendebaldeko ertza alde batera utzi, eta hego isurialdean dagoen *kroaziarren* bidetik igotzea erabaki zuten. Harrigarria bada ere, 1986. urtean zabaldutako bide hori beste inork berriro egin gabe zegoen; horrela bada, esku artean zuten erronka askoz ere zirraragarriagoa zen.

Erakargarria izateaz gainera, argazkiek argi adierazten zieten bide ederra zela. Hala zen, baina ezustekorik ere izan zuten. Hernaniarrak adierazi digunez, behin paretaren sarreran, egoera asko aldatu zen: "*Harantz joan aurretik aldizkari espezializatu batean ikusi genituen argazkiak, eta argazkien eta bertatik bertara ikusitakoaren artean alde nabarmena zegoen. Argazki horietan elur asko ikusten zen; gu hara iritsitakoan, berriz, arroka gehiago. Adibidez, kroaziarren zokaloa deitutakoan oso elur gutxi zegoen, eta hirugarren kanpalekura iritsi baino lehen dagoen azken zati horretan, elurra baino gehiago, serac-ak zeuden*".


ALDAKETA BEHARTUA. Nahiz eta aukeratutako guneak beste itxura bat zuen, hernaniarrak gidatutako espedizioak ekipatzeari ekin zion. Lan horretan bi egun pasatu zituzten, eta gutxi gorabehera 6.000 metroraino soka finkoak jarri zituzten. Berez, ez ziren jatorrizko bidetik abiatu, arestian aipatu dugun zokaloa nahikoa zail zegoelako. Horrela bada, eskuinean beste aldaketa bat egin zuten. Iñakiren ustetan, bideak ez zuen zailtasun tekniko handirik: "*Elurretan zein izotzean 55 graduko aldatsei egin genien aurre (sarrerako zokaloan 70º), eta arrokan, hirugarren eta laugarren graduko pausoei*".

Nahiz eta eguraldia lagun izan zuten, arazo oso larria izan zuten; izan ere, goialdetik harri asko askatzen zen. Arrisku horren ondorioz, espedizioko kide guztiek bide horretatik alde egitea erabaki zuten: "*Bidea berez polita da, baina sei lagunentzat arriskutsua zegoen. Aukera zentzuzkoena bi edo hiru lagunez osatutako sokada bat era alpinoan igotzea zen, baina, horren ordez, bide hori utzi eta ohiko bidera joatea ebatzi genuen*".

Berriro kanpaleku nagusira joan, eta hego-mendebaldeko ertza igotzea erabaki zuten. Beste urte batzuetan ez bezala, zazpi espedizio "soilik" zeuden. Ondo aklimatatuta zeudenez, eta eguraldia lagun zutenez, bidean sartu ziren. Hiru egun behar izan zituzten gailurra zapaltzeko; lehenbizikoan, lehenbiziko kanpalekura heldu ziren, bigarrenean hirugarrenean geratu ziren, eta hirugarrenean, tontorrera iritsi ziren. Hori bai, Iñigo Zabaleta izan ezik. Urriaren hamazazpigarrena zen: aleman talde batekin batera, iazko udazkenean Ama Dablam mendia igo zuten lehenak izan ziren. Espedizioburuak aipatu digunez, ohiko bidea baldintza onetan zegoen: "*Nahikoa ondo jardun genuen, besteak beste, baldintzekin eta eguraldiarekin zorte ona izan genuelako. Oso ertz ederra da; hori bai, soka finkoez josia. Kroaziarren bidean gertaturikoa pena izan zen, han bakar-bakarrik geundelako. Hala ere, oso esperientzia ederra izan da; sei milako oso aproposa da*".



Iñaki Zuza Ama Dablam mendiaren goi aldeko serac-a igotzen



Ama Dablam mendian antolatutako hirugarren kanpalekua; egun horretan mendi gidari hernaniarrak eta bere bezeroek gailurra jo zuten.



Ama Dablam mendiaren gailurra; ezkerretik bigarrena, Iñaki Zuza.